

A AUKERATIK ETA B AUKERATIK HAUTA DITZAKEZU GALDERAK, ATAL BAKOITZEAN ADIERAZTEN DEN BEZALA

A aukera

Zer egin burutik kendu ezin duzun abesti hori ahazteko

- 1 *Etengabe buruan entzuten duzun melodia inozoa behingoz ezabatzeko trukoak jarraian!* 1
- Denoi gertatu zaigu; irratan, telebistan ala kalean entzundako iragarki baten slogana, iraganeko kanturen bat ala gorroto dugun melodia bat buruan iltzatu¹, eta bertatik kendu ezinik ibiltzen gara, sutan jarri arte. Baina, zergatik gertatzen zaigu eta zer egin dezakegu melodia hori gure burutik ezabatzeko?
- 5 Fenomenoari *earworms* deitzen zaio, literalki, zizareak belarrietan; hain zuzen, sentsazio hori izaten dugu gorroto dugun kantu bat etengabe buruan errepikatzen dugunean. Normalean, konposizio sinplea duten kantuak izaten dira, hain zuzen, gure garunarentzat gogoratzeko errazak eta itsaskorrek direnak. Horregatik gogoratzen ditugu adibidez iragarkietako melodiak; errazak eta itsaskorrek dira, eta askotan entzuten ditugu, buruan iltzatuta gelditu arte.
- 10 Dena den, fenomeno hau gehiagotan gertatzen zaigu estres eta antsietate egoeran gaudenean; azterketa baten aurrean, lana gainezka dugunean, lo gutxi egin dugunean, urduri ala nekatuta gaudenean... orduan, inoiz baino gehiago agertzen dira *earworms* delakoak. Izan ere, musikak gure emozioak esnatzen ditu; horregatik, gure garuna aktibatu egiten da abesti zehatz bat entzuten dugunean, eta berdina gertatzen zaio abesti hori gogoratzen duenean.
- 15 *Eta zer egin abestia burutik kentzeko?*
- Obsesio guztien antzera, bi bide ditugu arazoari aurre egiteko; arreta beste zerbaitetara bideratu ala gure garuna gainkargatu. Lehen bidea aukeratuta beste abestiren bat entzun dezakegu, ala norbaitekin hitz egin, irratia ala telebista piztu... beste soinu bati arreta zuzendu, buruko soinua ahazteko. Bigarren bidea erradikalagoa da, baina bere emaitzak eman ditzake: burutik kendu ezinik dugun melodia hori behin eta berriro entzutean datza, garuna gainkargatu eta abestia behingoz burutik ezabatu arte.
- 20 Badago hirugarren bide bat; garunak interesa du amaitu ez diren gauzekin, eta burutik kendu ezinik gabiltzan kantua kasu hau izan daiteke. Hain zuzen abestiaren zatitxo bat etengabe errepikatzen badugu baina abestia osorik amaitzeko gai ez bagara, izan daiteke gure buruak abestia osorik amaitzeko desioa izatea; hortaz, abestia goitik behera entzutea grina hori asetzeko modua izan daiteke.

Ane Urrutikoetxea, *Berria*, 2020/11 /24(1) Iltzatu: *iltzez josi*.

GALDERAK (OHARRA: Adibideen ondoko parentesi arteko zenbakiak zein lerrotan dagoen adierazten du)

■ **A1. ATALA** (3 GALDERA AUKERATU HAUEN ARTEAN: A1.1., A1.2., A1.3., B1.1., B1.2 eta B1.3)

A1.1.- Testuko hitz hauen kasua eta numeroa eman, eta zehaztu falta diren numeroak:

irratan (2), *burutik* (4), *garunarentzat* (7), *arazoari* (14), *soinua* (16). (1 puntu)

A1.2.- Azpimarratutako esaldi zatia berridatzi, testuko esanahiari lotuz (1 puntu):

-... hori gure burutik ezabatzeko? (4)-... antsietate egoeran gaudenean,... (9)- ... hori gogoratzen duenean... (12)-... arazoari aurre egiteko; (14)- Lehen bidea aukeratuta... (15)A1.3.- Testua aintzat hartuz, eman hitz hauen sinonimo bana: *kendu* (3),*etengabe* (6), *esnatzen* (11), *abesti* (12), *garuna* (17). (1 puntu).■ **A2. ATALA** (2 GALDERA AUKERATU HAUEN ARTEAN: A2.1., A2.2., B2.1. eta B2.2)

A2.1.- Testu tipoa: bereizgarriak (150 hitz gehienez). (2 puntu)

A2.2.- Egin ezazu testuaren laburpena (100 hitz gehienez). (2 puntu)

■ **A3. ATALA** (GALDERA 1 AUKERATU BI HAUEN ARTEAN: A3.1 eta B3.1)

A3.1.- Egin ezazu iritzi kritikoa (200 hitz gutxienez). (3 puntu)

3 galdera aukeratu
sei hauen arteanA1.1. - A1.2. - A1.3. -
B1.1. - B1.2. - B1.3.2 galdera aukeratu
lau hauen arteanA2.1. - A2.2. -
B2.1. - B2.2.Galdera 1 aukeratu bi
hauen artean

A3.1. - B3.1.

B Aukera

Transmisio komunitarioaz

- 1 Euskararen transmisioaz ari garelarik familia bidezko transmisioa datorkigu burura, hau da: gurasoek seme-alabei hizkuntza(k) irakastea. Transmisio hori etxean gauzatzen ohi da, umezaroan, eta hurrek mintzaira ama hizkuntzatzat jasotzea du helburu. Hori hala gerta dadin, gurasoek euskaldunak izan behar dute, baitezpada. 1
- 5 Tradizioa duen hizkuntza transmisioaren kontzeptu horrek ikuskera jakin bat dakar: gurasoengandik seme-alabengana doan eta goitik behera, bertikalki eta noranzko bakarrean heldu den hizkuntza ematea, non transmititzaileek, helduek, jasotzaile hutsak diren haur hartzaileei hizkuntza irakasten baitiете. 5
- 10 Gure artean, halere, hizkuntza transmisioaren ideia hori dagoeneko pitzatzen¹ hasia da, hiztun komunitateak dituen ezaugarrirei eta beharrei erantzuteko egokia ez delakoan. Izan ere, euskararen transmisioaren adiera horrek haur euskaldun gehienen familiak bazter uzten ditu, euskara ez dakiten baina haur euskaldunak hazten ari diren gurasoentzako diskurtso egokirik eratu ezinik. Berebat, transmisioaren ideia horrek haurrak hiztun bilakatzeko prozesuari eragiten dioten alderdi funtsezko antz ikusezin uzten ditu, haurren egintzailetasuna edo agentzia, kasu; haurrak ez baitira hizkuntzaren jasotzaile pasibo hutsak, mintzairaren egoeran subjektu aktiboak baizik. 10
- 15 Izan ere, haurrak euskaldun hazteko bidean familiaz harago gizarte harremanek eta erakundeek ere jokatzen dute (auzo-komunitate hurbileko harreman sareek, eskolak eta hezkuntza arloko bestelako erakundeek, aisialdi antolatua, gizarte elkarteek, hedabideek...); ama hizkuntza sendo transmititzea ez baita etxeko transmisioa. Beraz, hizkuntza transmisio sozial hori gizarte bizitzak bermatzen du belaunaldien arteko eta haur belaunkideen arteko elkarrekintzetan. Hizkuntza transmisio sozial horren xedea haurrak (mintzaira hori ama hizkuntza izan ala ez) komunikazio gaitasun egokia eskuratzea da; hots, hiztun taldeko kide gaitua bilakatea. Hori horrela, gurasoen hizkuntza gaitasuna ez da abiapuntuko baldintza, nahiz haurra hiztun bilakatzeko bidean familiari egiteko garrantzitsua aitortu. 15
- 20 Belaunaldi berriak euskaraz jabetu eta euskaldun bilakatea prozesu orohartzailea edo holistikoa da, familia mugatzen ez dena eta eskolan soilik nekez gauza daitekeena. Hiztun bilakatea elkarrekintza kontua da, hizkuntzaz jabetze hutsa baino gehiago. Hala bada, hizkuntza transmisio komunitarioaz mintzatu beharko genuke, orain kontzeptu hori ere pandemiak bahiturik izanen ez balu. 20

Paula Kasares, *Berria*, 2020/11/25

(1) pitzatu: *arraildu*; zentzu metaforikoan: *galdu*, *desagertu*, *ezbaian jarri*.

GALDERAK (OHARRA: Adibideen ondoko parentesi arteko zenbakiak zein lerrotan dagoen adierazten du)

- **B1. ATALA** (3 GALDERA AUKERATU HAUEN ARTEAN: A1.1., A1.2., A1.3., B1.1., B1.2 eta B1.3)
 - B1.1.- Eman testuko adizki hauen aspektua, aldia, pertsona eta modua: *datorkigu* (1), *gerta dadin* (3), *dakar* (4), *uzten ditu* (11), *izanen balu* (23). (1 puntu)
 - B1.2.- Azpimarratutako esaldi zatia berridatzi, testuko esanahiari lotuz (1 puntu):
 - Euskararen transmisioaz ari garelarik... (1)
 - ... hizkuntza irakasten baitiете. (6)
 - ... erantzuteko egokia ez delakoan... (8)
 - ...; ama hizkuntza sendo transmititzea ez baita etxeko transmisioa. (15)
 - ...; nahiz haurra hiztun bilakatzeko bidean familiari egiteko garrantzitsua aitortu. (19)
 - B1.3.- Testua aintzat hartuz, eman hitz hauen sinonimo bana: *gauzatzen* (2), *mintzaira* (2), *bazter* (9), *eratu* (10), *bahiturik* (23). (1 puntu)
- **B2. ATALA** (2 GALDERA AUKERATU HAUEN ARTEAN: A2.1., A2.2., B2.1. eta B2.2)
 - B2.1.- Ulermen zehatza. Zer esan nahi du autoreak ondoko bi pasarte hauetan? (3-4 lerrotan bakoitza) (2 puntu):
 - "Gure artean, halere, hizkuntza transmisio ideia hori dagoeneko pitzatzen hasia da,..." (7)
 - "Hiztun bilakatea elkarrekintza kontua da,..." (21)
 - B2.2.- Igorlearen asmo komunikatiboa eta modalizazioa azaldu. (150 hitz gehienez). (2 puntu)
- **B3. ATALA** (GALDERA 1 AUKERATU BI HAUEN ARTEAN: A3.1 eta B3.1)
 - B3.1.- Egin ezazu iritzi kritikoa (200 hitz gutxienez). (3 puntu)

3 galdera aukeratu sei hauen artean

A1.1. - A1.2. - A1.3. - B1.1. - B1.2. - B1.3.

2 galdera aukeratu lau hauen artean

A2.1. - A2.2. - B2.1. - B2.2.

Galdera 1 aukeratu bi hauen artean

A3.1. - B3.1.